

“GKEak behartuta gaude gardenak izatera eta gure jardunaren kontu ematera”

Eduardo Sanchez Jacob
Garapenaren aldeko
GKEen Koordinadorako
lehendakaria



Gobernuz Kanpoko Erakundeak ongi ari dira. Urtero egiten dizkiete ikuskaritzak kanpotik, eta jardueraren jarraipena egiteko barne-mekanismoak ere badituzte. Jasotzen dituzten funtsak zertarako erabiltzen dituzten zuritu beharra dute, eta proiektu bakoitzarekin lortu dituzten emaitzen berri eman. Behartuta daude “gardenak izatera eta jardueren kontu ematera”. Eta norbaitek zalantza bat edukiko balu, horiek argitzeko biderik zuzena zein den adierazi nahi du Eduardo Sanchez Jacobek, Garapenaren aldeko GKEen Koordinadorako lehendakariak (CONGDE): “Diru-emaileek beti dute aukera erakundearekin harremanetan jarri eta hark emandakoa nora joan den jakiteko”.

Funtsezkoa al da herritarrek dirua ematea GKEei? Sekula baino gehiago. Administrazioek murriztu egin dituzte laguntzak, eta gure proiektuei eusteko, herritarren laguntza ekonomiko handiagoa behar dugu. Gainera, kontuan hartu behar da besteak iristen ez diren lekuan lan egiten dutela GKEek, eta kolektiborik ahulenekin, zeinak gero eta ugariago baitira.

Internet eta mugikorretako mezua agertu dira orain dirua emateko, baina seguruak al dira? Internet bidezko dohaintzat egiteko sistemen segurtasuna erosketak egiteko erabiltzen diren bezalakoa da, eta bermatu egiten dute dirua behar den lekura iritsiko dela.

Horietan ere babesten al dira emaileen datu pertsonalak? Oro har, GKEen alorrak oso zorrotz betetzen du Datuak Babesteko Legea, zeinak bermatu egiten baitu datu horien pribatasuna eta erabilera egokia. Gainera emaileak edozein unetan alda ditzake datuak edo horien trataera.

Zer-nolako informazioa eska dezake emaileak, dohaintza egin ondoren? Emaileak dirua nora bideratu nahi duen, hori errespetatzera behartuta gaude GKEak, eta gardenak izatera, gure jardueren kontu ematera eta kontu guztiak ikuskatzera. GKEek aldi behin informazioa bidaltzen diete emaileei, jardueretara gonbidatu edo sentsibilizazio-ekimenetan parte hartzerantz deitzen diete. Gainera, gehienok Interneten ematen dugu gure jardueraren berri, baina zerbaiti buruz gehiago jakin nahi badute, diru-emaileek beti dute aukera erakundearekin harremanetan jarri eta hark emandakoa nora joan den jakiteko.

Zer gertatzen da web-orria ez bada-ego eguneratua? Erakunde askok *on line* parte hartzeko mekanismoak txertatu dituzte, eztabaidaguneak edo foroak, adibidez. Baina eguneratu gabea bada-ego edo norbaiti iruditzen bazaio garrantziko zerbait falta duela, erakundearekin harremanetan jar daiteke.

Eta urteko memoria eskuratu nahi badi? Koordinadorako kide garen GKE guztiok behartuta gaude urteko memoria argitaratzera eta han gure jardueren, programen, baliabideen eta gobernu-organoen berri ematera. Gainera, garapenaren alde ari diren GKEen Jokabide-Kodearen Jarraipen-Batzordea daukagu, zeinak gaitasun zigortzailea baitu; kontabilitate-legedi berriak, berri, derri-gortu egiten gaitu, urteko kontuak eta memoria aurkeztearekin batera, Jarduera-Plan bat ere aurkeztera. Gardentasuna da gure lanaren ardatz nagusietakoa, eta emaileekin dugun harremana.

Zeren aldekoa zara gehiago, jarraipena barnetik egiteko sistemen aldekoa edo kanpotik ikuskaritzak egitearen aldekoa? Elkarren osagarriak dira. Kanpoko kontabilitate-ikuskaritzak

ohikoak dira, eta emaile handiek emandako funtsak zuzitzeko arauak oso zorrotzak. Proiektuak ere ikuskatzen dira kanpotik, zer-nolako emaitzak eta eraginak izan dituzten neurtzeko, eta, aurten hasita, Koordinadorako GKEok kanpoko ikuskaritzak egin behar dizkiegu gure gardentasunaren eta gobernu onaren adierazleei.

Funts publiko edo pribatuak sartzak baldintzatzen al du neutraltasuna? GKE baten arriskurik handiena zera da: emaile gutxi batzuegandik jasotzea funtsak, zeren baldintzatzen saia baitaitezke. Finantzaketak dibertsifikatua izan behar du, emaile askorena. Orain artean, herritarrek jarritako funtsen zati handi bat administrazio publikoen bidez iristen zitzaigun, haiek kudeatzen baitituzte zergak, baina baliabide horiek murrizten ari dira, eta zuzenean jo behar dugu herritarrengana. Kanpo Arazoetarako eta Kooperaziorako Espainiako Ministerioak 1.016 milioi euro gutxiago emango ditu, eta Kooperaziorako Estatu Idazkaritza kendu egin dute. Horrek pentsarazten digu garapen arlora bideratuta dauden funtsak murriztuko dituztela gehien, eta hori oso larria da, krisiak ahulenei eragiten dielako bortitzen.

Arriskuan al dauden GKEen aurtengo proiektuak? Bai. GKEek ahal bezainbat murrizten ditugu gastuak, baina baliabiderik ez bada, proiektuak itxi beste aukerarik ez dugu.

Beharrezkoa al da erakundeen arteko elkarlana gehiago sustatzea? Jendeak ez du jakingo, baina GKEek lan asko egiten ditugu elkarrekin. Koordinadora bera da horren adibidea, zeinak 25 urte bete baititu, eta erkidegoetako 17 koordinadorak, non 500 erakunde baino gehiago biltzen diren.